

UPV/EHUren KONTRATAZIOETAN GIZARTE, ETIKA ETA INGURUMEN IRIZPIDEAK ERABILTZEKO ERREKTOREAREN ZIRKULARRA

UPV/EHUK Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera egiten diren kontratazioen adjudikazioetan eta gauzatzeetan etika, gizarte eta ingurumen irizpideak erabiltzeko hartu duen konpromisoa adierazi du.

Ildo horretatik, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak eta obra, hornikuntza eta zerbitzu kontratu publikoen adjudikazio prozedurei buruzko 2004ko martxoaren 31ko 2004/18/EE Zuzentarauak adjudikazio eta gauzatze prozeduretan gizarte irizpideak erabiltzea barne hartzen dute beren artikuluetan, erreferentzia zehatzak eginez sexu berdintasunari, pertsona desgaituei, gizarteratzeari eta lan munduratzeari, eta enplegu politikei.

Espainiako Konstituzioak, 40.1 artikuluan, botere publikoek aurrerapen sozial eta ekonomikoa, bidezko errenta banaketa eta enplegu osoa lortzera bideratutako politika bultzatu behar dutela ezartzen du, inolako bereizkeriarik egin gabe jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta (14. art.); gainera, lanbideko heziketa eta birmoldatzea sustatuko dute, baita laneko segurtasuna eta garbitasuna (40.2 art.) eta elbarri fisikoen, zentzumen elbarrien eta elbarri psikikoen gizarteratzea ere (49. art.).

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, Eusko Legebiltzarrak 2007ko ekainaren 8an onartutako ez-legezko proposamena aipatu behar da, kontratazio prozeduretan klausula sozialak sartzeari buruzkoa, Eusko Jaurlaritzari gizarte klausulak garatzeko eskaera egin ziona. Mozio horrek Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publikoak barne hartzeari buruz Gobernu Kontseiluak 2008ko apirilaren 29an onartutako erabakia ekarri zuen. Erabaki horrek Eusko Jaurlaritzaren sail, enpresa publiko eta erakunde autonomo guztiek beren kontratazio orrien karatuletan sartu behar dituzten hainbat klausula zehazten ditu.

UPV/EHUren estatutuek ere mota horretako jarduerak babesten dituzte: kontratu publikoetan gizarte bazterkeriako egoeran dauden pertsonen eta/edo ezintasunen bat dutenen gizarteratzearekin eta lan munduratzearekin zerikusia duten gizarte irizpideak sartzea, enpleguaren kalitatea sustatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorraren alde egitea, laneko segurtasuna eta osasuna ahalbidetzea eta ingurumen irizpideak erabiltzea. Izan ere, bertako 114.2 artikulua arabera, UPV/EHUK, bere gizarte erantzukizunerako politika betetze aldera, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, bizikidetzak, baketsuaren eta giza eskubideen defentsaren balioetan oinarritutako hezkuntza, unibertsitateko kideen parte-hartzea, ingurumen balioak eta iraunkortasun irizpideak sustatuko ditu.

Adierazitakoa kontuan hartuta, ZIRKULAR hau egin dugu, kontratazioen lizitazio prozeduraren fase desberdinetan gizarte eta ingurumen alderdiak barne hartzeko aukerak segurtasun juridiko osoz gauzatzeko helburuarekin.

ZIRKULARRAREN EGITURA

1. KAPITULUA: Erreserbatutako kontratuak;
2. KAPITULUA: Adjudikazio irizpideak;
3. KAPITULUA: Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak;
4. KAPITULUA: Eskumenak;

ERANSKINAK:

- I. ERANSKINA: Ezaugarri sozialei buruzko konpromiso adierazpena.
- II. ERANSKINA: Gizarteratzeari eta lan munduratzeari buruzko protokoloa eta lan merkatuko pertsona gutxietsien kontratazioa.
- III. ERANSKINA: Lana lortzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak.

I. KAPITULUA: ERRESERBATUTAKO KONTRATUAK

1. artikulua. *Orokorra.*

Sektore Publikoko Kontratuen 3/2011 Legegintzako EDren bosgarren xedapen gehigarriaren arabera, UPV/EHUK enplegu babestuko programak garatzen dituzten erakundeentzat erreserbatuko du kontratu jakin batzuen adjudikazio prozesuan parte hartzeko aukera.

2. artikulua. *Erreserba aplika dakiekeen kontratuak.*

Erreserbatutako kontratuak izango dira beren helburuagatik laguntza eta segimendu lana ondo egiteko eskulan intentsiboa kontratatzeko aukera ematen dutenak, eta adjudikazio prozesuan parte hartzeko aukera enplegu babestuko programei eta 4. artikuluan adierazitako erakundeetara mugatzen dietenak.

3. artikulua. *Erreserbaren adierazpena.*

1. Kontratazio organoak erabakiko du lizitazio zehatz bakoitzerako erreserbatutako kontratu kategoria aplikatzea, 19. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.
2. Kontratuaren lizitazio iragarkian adierazi behar da erreserbatutako kontratua dela.
3. Osagarri gisa, UPV/EHUK, bere urteko aurrekontuen edo erabaki espezifiko baten bidez, urteko gutxieneko zenbateko bat ezarri ahal izango du, erreserbatutako kontratuen bidez adjudikatzeko. Zenbateko hori 19. artikuluan zehaztutakoaren arabera ezarriko da.

4. artikulua. *Erreserbaren erakunde onuradunak.*

1. Erreserbatutako kontratuen adjudikazioan parte hartzeko aukera izango dute Enplegu Zentro Berezi edo Gizarteratzeko Enpresa kalifikazioa duten eta helburu gisa gizarte bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen lan munduratzeari edo gizarteratzeari duten erakundeek.
2. Gizarteratzeko Enpresek legalki eratuta eta sailkatuta egon behar dute, gizarteratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duen eta horietan sartzeko eta erregistratzeko prozedura ezartzen duen azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuaren arabera.
3. Enplegu Zentro Bereziak legalki eratuta eta erregistratuta egon behar dute, Enplegu Zentro Berezien Araudia onartzen duen abenduaren 4ko 2273/1985 Errege Dekretuaren arabera.
4. Erreserbatutako kontratuen kasuan, kontratazio organoak enpresa horiek nahitaezko bermea eratzetik salbuetsiko ditu.

5. artikulua. *Adjudikazio prozedurak.*

1. Gizarteratzeko Enpresentzako erreserba kontratu txikien eta/edo zenbatekoa dela-eta publizitaterik behar ez duten prozedura negoziatuen bidez bakarrik aplikatuko da, UPV/EHUKen Barneko Kontratazio Argibideetan ezarritakoaren arabera.
2. Enplegu Zentro Bereziarentzako edo enplegu babesturako programentzako erreserba langileen % 70 ezintasunen bat duten pertsonak direnean bakarrik aplikatu ahal izango da zenbateko edo prozedura mugarik gabe.

II. KAPITULUA: ADJUDIKAZIO IRIZPIDEETAN GIZARTE ETA INGURUMEN KLAUSULAK SARTZEA

6. artikulua. *Orokorra.*

Sektore Publikoko Kontratuen 3/2011 EDren 150. artikulua arabera, proposamenak baloratzeko kontuan hartu behar dira kontratuaren helburuekiko lotura zuzena duten irizpideak, esaterako, gizarte eskakizunak edo ingurumen ezaugarriak betetzeari lotutako ezaugarriak, kontratuari aplikatuta kontratazio organoarentzako eskaintza onuragarriagoa osatuko dutenak; betiere, kapitulu honetan ezarritakoarekin bat etorritik.

7. artikulua. Irizpideak barne hartuko dituzten kontratuak.

1. Gizarte eta ingurumen irizpideak erabiliko dira proposamenak baloratzeko eta eskaintza ekonomiko onuragarriena zein den zehazteko, UPV/EHUK lizitatu beharreko kontratazioetan, betiere, berrogeita hamar mila euro baino gehiagoko balioa kalkulatzen denean obra kontratuetan, eta hemezortzi mila euro baino gehiagokoa gainerako kontratuetan.
2. Kontratu txikietan eta administrazio klausula berezien edo preskripzio teknikoaren orriak egitea eta onartzea beharrezkoa ez duten kontratuetan, gizarte arloko adjudikazio irizpideak egindako kontratu dokumentuetan eta kontratua prestatzeko dokumentuetan sartuko dira, hala dagokionean.
3. Gizarte eta ingurumen arlokoetako adjudikazio irizpideak sartzeko, Sektore Publikoko Kontratuen 3/2011 EDren 150. artikuluan ezarritako baldintzak betetzeaz gain, nahitaezkoa izango da kontratuaren helburuak bere edukiaren ezaugarriak zehazten dituzten irizpideei erreferentzia egitea. Esaterako: "Lorategi zerbitzu baten kontratazioa, gizarteratzeko eta lan munduratzeko jardueren bidez", "Bidezko merkataritzako produktuak erabilita gauzatutako catering zerbitzua" edo "Baso kudeaketa iraunkorraren bidez lortutako egurrarekin egindako bulegoko altzariak".
4. Gizarte eta ingurumen arloetako adjudikazio irizpideen erabilera 19. artikuluan ezarritakoaren arabera baliozkotuko da.

8. artikulua. Aplika daitezkeen irizpideak.

a) Gizarte arloko adjudikazio irizpideak hauen artean aukeratu behar dira:

1. Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna:

Gehienez 20 puntu eman ahal izango dira erakunde lizitatuak aurkeztutako eskaintzan genero ikuspegia sartzeagatik. Puntuazio hori honako atal hauetako batean edo gehiagotan banakatuko da:

- Gehienez 10 punturekin baloratuko da erakunde lizitatuak kontratua gauzatzeko helburuarekin emakume gehiago kontratatzearen konpromisoa hartzea, betiere, kopuru hori gauzatzeko baldintza gisa ezarritakoa baino handiagoa bada eta Estatistikako Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren azken Inkestan dagokion sektorerako jasotako sexuaren eta jarduera arloaren arabera batez besteko portzentajea baino bost puntu handiagoa bada, gutxienez. Gainerakoek puntuazio behar hori proportzionala jasoko dute, honako formula honen arabera: $P = EK / OEK \times 10$ (non P erakunde lizitatuak lortutako puntuazioa den, EK erakunde lizitatuak hartutako konpromisoaren arabera kontratatuko dituen emakumeen kopurua, eta OEK eskaintza onena egiten duen erakunde lizitatuak hartutako konpromisoaren arabera kontratatuko dituen emakumeen kopurua).
- Gehienez 5 puntu jasoko dituzte erakunde lizitatuak berdintasun plan espezifiko bat diseinatzeagatik eta aurkezteagatik; kontratua lortuz gero, berau gauzatzekoan plan hori aplikatzeko konpromisoa hartuko dute. Planak kontratua gauzatzekoan enpresak martxan jarriko dituen berdintasun politikak zehaztasunez adierazi behar ditu lana lortzeari, sailkapen profesionalari, laneko kalitateari eta egonkortasunari, lanaldiaren iraupenari eta antolamenduari eta beste alderdi batzuei dagokienez.
- Gehienez 10 punturekin baloratu ahal izango dira erakunde lizitatuak kontratua gauzatzeko duten langileei aplikatzeko dizkien bitzita pertsonala, lanekoa eta familiarikoa bateratzeko neurri zehatzak; betiere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako gutxienekoak hobetzen badituzte. Enpresa lizitatuak proposatutako neurri zehatzen aplikazio egutegia eta ebaluazio adierazleak barne hartzen dituen proposamen tekniko bat aurkeztu behar du. Hauek izango dira neurri horietako batzuk: adingabeei edo zaintza behar duten pertsonen arreta eskaintzeko zerbitzu txekoa edo baliabide soziokomunitarioak; lanaldi laburtzeak, eszedentziak, lizentziak eta aitatasun edo amatasun baimenak hobetzea; zerbitzuak eta ordutegiak bateratzeko beharren arabera malgutzeko, egokitze edo berriro esleitzea; eta antzeko beste neurri batzuk.

2. Lan merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonentzako enplegua sortzea:

Gehienez 20 punturekin baloratu ahal izango da erakunde lizitatuak, kontratua gauzatzeko, lan

merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsona gehiago erabiltzeko konpromisoa hartzea.

Enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak III. eranskineko zerrendan agertzen direnak izango dira.

Gutxieneko portzentajeak gauzatze baldintzetan adierazitako nahitaezko portzentajea gainditu behar du. Gutxieneko portzentajea alde handienarekin gainditzen duen proposamenak jasoko du ezarritako gehienezko puntuazioa.

Gainerakoek puntuazio proportzionala jasoko dute, formula honen arabera: $P = ZPK / OZPK \times 20$ (non P erakunde lizitatzailerak lortutako puntuazioa den, ZPK erakunde lizitatzailerak hartutako konpromisoaren arabera lan merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonetatik kontratatuko dituenen kopurua, eta OZPK (eskaintza onena egiten duen erakunde lizitatzailerak hartutako konpromisoaren arabera lan merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonetatik kontratatuko dituenen kopurua).

Zirkular honen II. eranskinak erakunde lizitatzailerak klausula hau borondatez onartuta bere gain hartzen dituen metodologia eta betebeharrak zehazten ditu. Eranskin hau kontratazio orriaren parte izango da eta funtsezko kontratu izaera osoa izango du.

3. Azpikontratazioa erakunde sozialekin, solidarioekin edo irabazi asmorik gabekoekin.

Gehienez 20 puntu eman ahal izango zaizkio kontratua adjudikatzeko aurrekontuaren portzentaje bat Gizarteratzeko Enpresen, Enplegu Zentro Berezien edo irabazi asmorik gabeko erakunde sozial edo solidarioen bidez azpikontratatuzko konpromisoa hartzen duen erakunde lizitatzailerari (dagokion kontratu zibilaren edo merkataritza kontratuaren bidez).

Adjudikazio irizpide hau aurreko puntuan adierazitakoaren alternatiboa edo osagarria izan daiteke.

Puntuazioa lizitatzailerak deskribatutako erakundeekin azpikontratatuzko hartzen duen konpromisoaren arabera izango da, hau da, kontratazio aurrekontutik azpikontratatuzko duen zenbatekoaren eta portzentajearen arabera. Edonola ere, gehienez 20 puntu jaso ahal izango ditu, honako formula honen arabera: $P = KAA / LA \times 20$ (non P lortutako puntuazioa den, KAA enpresa lizitatzailerak hartutako konpromisoaren arabera azpikontratatuzko duen aurrekontua, eta LA proposamen ekonomikoak barne hartzen duen lizitazio aurrekontua).

4. Gizarte edo laguntza kontratuetako proposamenaren gizarte kalitatea

Gehienez 20 punturekin baloratu ahal izango da aurkeztutako proposamenaren gizarte kalitatea. Puntuazio hori honako atal hauetako batean, gehiagotan edo guztietan banakatuko da:

- Tartean diren pertsona eta eragileekin (organo kontratatzailea, profesionalak, erabiltzaileak, onuradunak eta kontratua diseinatzen, hobetzen, gauzatzen eta ebaluatzen beren borondatez ari direnak) partaidetzako metodologiak eta mekanismoak aplikatzea.
- Gauzatze aldiaren kontratuaren helburua betetzeko erakunde publiko edo pribatuarekin, lan sareekin eta erakunde taldeekin koordinatuta eta haien osagarri gisa lan egitea.
- Kontratua gauzatzen, lanak deskribatzen eta kontratuko zerbitzuaren erabiltzaile eta onuradun taldeei arreta eskaintzen lagunduko duten boluntarioen kopurua.
- Kontratuaren edukia lurraldera eta lekuaren nortasunera eta nortasun soziokulturalera egokitzea.
- Transferentziaz eta sentsibilizazioaz arduratzea: kontratua gauzatu bitartean edo amaitzean zerbitzua emateari dagokionez enpresa adjudikaziodunak egingo dituen argitalpenak, azterlanak edo komunikazioak.
- Erakunde adjudikaziodunak proiektua gauzatzeko bere funtsekin egingo dituen jarduerak deskribatzea.
- Zerbitzua gutxitu fisiko eta psikikoentzat eta zentzumen gutxituentzat irisgarria izatea eta proiektuaren edukia talde jakinei egokitzea (etorkinak, adinekoak, haurrak, gutxiengo etnikoetako pertsonak, eta abar).

5. Gizarteratze eta lan munduratze proiektua:

Kontratuaren helburu nagusia gizarteratzea eta lan munduratzea denetan bakarrik gehienezko puntuazioa (25 puntu) emango zaio enpresa lizitatzailerak aurkeztutako gizarteratze eta lan munduratze

proiektuari.

Xede horretarako, puntuazio hori honako atal hauetako batean edo gehiagotan banakatuko da:

- Gizarte bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden eta lizitatzailleak hartutako konpromisoaren arabera kontratua gauzatzeko kontratatuko dituen pertsonen kopurua eta portzentajea, gizarteratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duen eta horietan sartzeko eta erregistratzeko prozedura ezartzen duen azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuan adierazitako profilen barruan.
- Gizarteratze eta lan munduratze prozesuan laguntzen espezializatutako teknikariak.
- Gizarteratze eta lan munduratze ibilbideak egiteko ezarritako lan metodologia, eta gizarteratze eta lan munduratze prozesu pertsonalizatuaren ebaluazio adierazleak, horien eraginkortasuna eta egokitasuna kontuan hartuz.
- Prestakuntza plan orokorra eta espezifikoak.
- Kontratuaren xede diren eginkizunak gauzatzeko lurraldean erakunde publiko eta pribatuekin koordinatzeko proposamena.
- Gizarteratze eta lan munduratze kontratuak dituzten pertsonak ohiko lan merkatuan sartzeko ezarritako mekanismoak.

Zirkular honen II. eranskinak lizitatzailleak klausula hau borondatez onartuta bere gain hartzen dituen metodologia eta betebeharrak zehazten ditu. Eranskin hau kontratazio orriaren parte izango da eta funtsezko kontratu izaera osoa izango du.

b) Ingurumen arloko adjudikazio irizpideak.

Adjudikazio irizpide bakar bat baino gehiago ezartzen dituzten administrazio klausula berezien orrien karatulak eskainitako produktu edo zerbitzuaren ingurumen alderdiak izango ditu aipatu adjudikazio irizpideen artean, betiere, preskripzio tekniko berezien orrian, onartutako proiektuan edo sektoreko arau aplikagarrietan ezarritako gutxienezkoak gainditzen badute eta, kontratuaren xedeari zuzenean lotuta egonda, kontratazio organoak egokitzat jo eta zehatz-mehatz adierazten baditu.

Produktuaren edo zerbitzuaren ingurumen alderdiak kasuan kasu kontratazio orriek ezartzen duten moduan haztatuta baloratuko dira; objektiboak, espezifikoak eta objektiboki kuantifikagarriak izan behar dute, enpresa lizitatzaille guztiek zer alderdi baloratu behar diren jakin dezaten eta modu berean interpreta ditzaten, eta kontratazio organoak eskaintzak alderatzerik izan dezan.

Orientazio modura, baina, betiere, goian aipatutako mugen barruan, bai eskainitako bukaerako produktu edo zerbitzuari bai produktua prestatzeko prozesuan edo kontratua gauzatzeko erabilitakoari dagozkien ingurumen arloko adjudikazio irizpideak ondorengo hauek izan litezke, besteak beste:

- Berotegi efektuko gas isuriak murriztea (esate baterako, CO₂, HFC, PFC eta SF₆).
- Isuri kutsagarriak murriztea (adibidez, partikulak –PM₁₀, PM_{2,5}–, disolbatzaileak –COV– eta nitrogeno oxidoak).
- Energia eraginkortasunaren alde egitea eta energia iturri berriztagarriak erabiltzea.
- Uraren Esparru Zuzentarauak (2000/60/EE) lehenetsitako gaiak uretara isurtzeko joera murriztea.
- Produktu edo gai arriskutsu kartzinogenikoak, mutagenikoak eta ugalketarako toxikoak ezabatzea edo murriztea, bereziki R 50/53 arriskuko gaiak.
- Baliabide naturalen kontsumoa gutxitzea (lehengaiak, erregaiak eta ura).
- Ahalik eta hondakin arriskutsu eta ez arriskutsu gutxien sortzea eta horiek berrerabiltzea edo birziklatzea.
- Bukaerako produktua egiteko birziklatutako materialak erabiltzea.
- Zenbait etiketa ekologiko, ekodiseinuari buruzko UNE 150301 araua eta produktu edo zerbitzuaren beste kalitate bereizgarri batzuk betetzea.

Eskaintza aukeratzeko ez dira kontuan izango beste adjudikazio irizpide batean baloratu diren adjudikazio irizpide bateko alderdiak.

Hala, produktuaren bizi zikloaren kostua aplikatzean ez dira kontuan izango prezioan edo beste irizpide batzuetan sartu eta baloratu diren alderdiak (adibidez, garraio eta entrega kostua); bai, ordea, produktuaren bizi ziklo osoan zehar kontratazio organoaren kontura diren kostuak.

Inola ere ez dira "ingurumena errespetatzen duena" bezalako esapide generikoak eta antzekoak erabiliko; aitzitik, halakoak adierazteko irizpide zehatzak jarriko dira, kontratuaren xedeari loturikoak, kuantifikatzeko modukoak eta zehaztuak, lizitatzailerik guztiek irizpidea eta baloratzeko modua berdin interpretatu ahal izateko.

9. artikulua. Irizpide aplikagarriak hautatzea eta haztatzea.

1. Kontratuaren xedeak berariaz jaso behar du 8. artikuluan adierazten diren gaietako batez, edo batez baino gehiagoz, ari den.
2. Aukeratutako gaiak azpi-irizpideak baldin baditu, horietako bat, batzuk edo denak sartu ahal izango dira kontratazio orrietan.
3. Kapitulu honetan araututako adjudikazio irizpideek **10 eta 20** puntu arteko haztapena izango dute. Muga orokor hori eta irizpide bakoitzerako ezarritako gehienezkoak kontuan izanda, kontratazio organoak egoki irizten dion puntuazioa emango die gai bakoitzari eta azpi-irizpide ezberdinei.
4. Nolanahi ere, aipatu puntuazioa eta haztapenak kontratuaren xedera egokitu behar dira.

10. artikulua. Gizarte arloko adjudikazio irizpideak ez sartzeko arrazoia.

Salbuespen gisa, kontratazio organoak adieraz dezake kontratuaren ezaugarriak ez direla egokiak gizarte arloko adjudikazio irizpideak sartzeko edo ezarritakoak baino portzentaje edo puntuazio txikiagoak aplikatu behar direla.

Halakoetan, aipatu irizpideak sartzea komenigarria ez izateko arrazoiak txosten batean jasoko dira eta txosten hau espedienteari erantsiko zaio.

11. artikulua. Gizarte hobekuntzak edo aldaerak.

1. Sektore Publikoko Kontratuen 3/2011 EDren 147. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio organoak kontuan hartu ahal izango ditu lizitatzailerik eskaintzen dituzten gizarte edo ingurumen arloko hobekuntzak edo aldaerak.
2. Kontratuaren xedean ez denean zirkular honetako 9.1 artikuluan ezarritako gizarte baldintzarik aipatzen, gizarte arloko irizpideak kontratu guztietan sartuko dira –beren zenbatekoa edo gauzatze aldia edozein direla ere–, hobekuntza gisa, eta gutxienez % 5eko eta gehienez % 10eko haztapena izango dute.
3. Oro har, 2na puntu jasoko dituzte zirkular honetako 8.a)1, 8.a)2, 8.a)3, 8.a)4. eta 8.a)5 ataletan adierazitako irizpideek. Hala ere, kontratazio organoak egoki deritzon moduan hautatu eta haztatu ahal izango ditu irizpideak.
4. Administrazio klausulen orriak berariaz aipatu behar du proposamen teknikoetan gizarte aldaerak edo hobekuntzak aurkezteko aukera; horren harira, zer elementuren inguruan eta zer baldintzatan aurkez daitezkeen zehaztuko du eta lizitazio iragarkian emango du horretarako aukeraren berri.

III. KAPITULUA: KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK SARTZEA

12. artikulua. Orokorra.

Sektore Publikoko Kontratuen 3/2011 EDren 118. artikuluan ezarritakoaren arabera, gizarte eta ingurumen arloko gauzatze baldintza bereziak gehitu ahal izango zaizkio kontratuari. Baldintzok betebeharrak izango dira enpresa adjudikaziodunarentzat kontratua gauzatzeko aldian.

13. artikulua. Kontratua gauzatzeko baldintza berezien aplikazio eremua.

1. Kapitulu honetan araututako gauzatze baldintza bereziak berrogeita hamar mila euro baino

- gehiagoko obra kontratueta eta hemezortzi mila euro baino gehiagoko gainerako kontratueta sartuko dira.
2. Gizarte eta ingurumen arloko gauzatze baldintza bereziak lizitazio iragarkian eta kontratazio orrietan jasoko dira.
 3. Administrazio klausulen orriak egitea eta onartzea beharrezkoa ez duten kontratueta, kapitulu honetan ezarritako irizpideak egindako kontratu dokumentueta eta kontratua prestatzeko dokumentueta sartuko dira, hala dagokionean.
 4. Nolanahi ere, finkatutako betebeharrak eta portzentajeak kontratu bakoitzaren xedera, jarduera sektorera eta edukira egokitu behar dira.

14. artikulua. Aplikagarriak diren gauzatze baldintza bereziak.

Kontratazio orrietan ondorengo gauzatze baldintza bereziak sartuko dira:

1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna:

- Enpresa adjudikaziodunak kontratua gauzatuko duten langileek bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratu ahal izateko neurriak ezarriko ditu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera.
- 250 langile baino gehiagoko enpresek Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako Berdintasun Plana diseinatu dutela eta eraginkortasunez aplikatzen dutela egiaztatuko dute.
- Emakumezko langileen kopuru desorekatua duen enpresa adjudikaziodun orok kontratua gauzatu bitartean gutxienez emakume bat kontratatuko du edo emakume baten aldi baterako kontratu bat kontratu finko bihurtu. Kopuru desorekatutzat joko da langile guztien % 40 baino gutxiago emakumezkoak izatea.

2. Ezintasunen bat duten pertsonak:

- 50 langile baino gehiago dituzten enpresek langileen % 2k, gutxienez, % 33ko edo gehiagoko ezintasuna dutela egiaztatu behar dute.
- Kontratua gauzatzeko gutxienez 15 pertsona kontratatu behar badira, enpresa adjudikaziodunek kontratua gauzatuko duten langileetako batek, gutxienez, % 33ko edo gehiagoko ezintasuna duela egiaztatu behar dute.

3. Lan merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonentzako enplegua sortzea:

- Enpresa adjudikaziodunak kontratua gauzatzeko eskainiko dituen langileen % 10ek gutxienez lan merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak izan behar dute.
- Enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak III. eranskineko zerrendan agertzen direnak izango dira.
- Zirkular honen II. eranskinak klausula honi dagozkion metodologia eta betebeharrak zehazten ditu. Eranskin hau kontratazio orriaren parte izango da eta funtsezko kontratu izaera osoa eta gauzatze baldintza berezi izaera izango du.
- Langileak subrogatzeko betebeharra baldin balego, edo beste inguruabar batzuek adierazitako portzentajea betetzea eragotziko balute kontratua gauzatzen hasterakoan, enpresak pertsona profil hori kontratatu behar du egin beharreko kontratu berri, baja eta ordezkapen guztietan, aipatu portzentajera iritsi arte.
- Osagarri edo ordezkari gisa, enpresa adjudikaziodunak Gizarteratzeko Enpresa edo Enplegu Zentro Berezi batekin azpikontratazeko konpromisoaren bidez egiaztatu ahal izango du baldintza hori betetzen duela. Horiekin kontratuari dagokion adjudikazio aurrekontuaren portzentaje bera azpikontratu ahal izango du.

4. Irizpide etikoak eta bidezko merkataritzakoak.

- Bidezko merkataritzako produktuak eskain ditzaketen kontratuetan, eta, betiere, kontratazio organoak berariaz aukera hori ematen badu, enpresa adjudikaziodunak era horretako produktuak eskaini behar ditu zerbitzuetan edo hornikuntzan. Betebeharra ondorengo hauei dagokie (kontratazio organoak zehaztuko ditu horren ezaugarriak):
 - ✓ Produktu jakin batzuei (kafea, tea, infusioak, kakaoa, azukrea, arroza, ezti, zukuak, fruta freskoa, loreak, fruitu lehorrak, ehunezko produktuak, eta bestelakoak).
 - ✓ Lizitazio aurrekontu osotik bidezko merkataritzako produktuen zenbateko jakin bati edo portzentaje bati.

Bidezko merkataritzako produktuen erabilera egiaztatzeko, nazioarteko bi berme sistemak aplika daitezke: WFTO –Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Erakundeak emana eta erakundeak bermatzekoa– eta Fairtrade zigilua –Fair Labelling Organisation/Bidezko Merkataritzako Zigiluaren Elkarteak emana, produktuak ziurtatzen dituen eta erakunde arruntek ere jaso dezaketena–.

- Hegoaldeko herrialdeetan ekoiztuak izan daitezkeen produktuak darabiltzaten hornikuntza kontratuetan, kontratazio organoak halako produktuen erabilera egokitzen jotzen baldin badu, gizarte arloko gauzatze baldintza berezien artean berariaz jasoko da (Sektore Publikoko Kontratuen 3/2011 EDren 118. artikuluan ezarritakoaren arabera) ekoizpen kate osoan oinarrituko lan eskubideak errespetatuko direla eta enpresa lizitatzailerari Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrituko arauak betetzeko eskatuko zaio, bereziki honako hauek:
 - ✓ 29. eta 105. arauak, bortxazko lana ezabatzeari buruzkoak.
 - ✓ 87. eta 98. arauak, askatasun sindikalari, elkartzeko askatasunari eta negoziazio kolektiboari buruzkoak.
 - ✓ 100. araua, balio bereko lanagatik gizonezkoen eta emakumezkoen eskulana berdin ordaintzeari buruzkoa.
 - ✓ 111. araua, lana lortzerakoan eta lan baldintzetan arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzi politiko, nazionalitate eta jatorri sozialagatiko bereizkeriaren aurkakoak.
 - ✓ 138. araua, esplotazioa eta haurren lana deuseztatzeari buruzkoa.
 - ✓ 182. araua, haurren lan modurik okerrenak debekatzeari eta horiek berehala ezabatzeari buruzkoa.

Enpresa lizitatzailerak honako hauen bidez egiaztatu behar du aipatu arauak betetzen dituela:

- ✓ Jokabide kodearen ziurtagiriaren bidez (SA 8000 / Fair Wear Foundation, Made in Green, edo baliokidea).
- ✓ Kanpoko enpresek egindako gizarte auditoretzako ziurtagiriaren bidez.
- ✓ Zinpeko adierazpenaren bidez, edo bidezko merkataritzari eta garapenari buruzko Europako Parlamentuaren 2005/2245 Ebazpenean (IMI) ezarritako arauak betetzen dituela egiaztatzen duen eta zuzenbideak onartzen duen edozein frogaren bidez.

5. Ingurumena babestea.

Administrazio baldintza berezien orriak, “Ingurumen edo gizarte arloko gauzatze baldintza bereziak” atalean, “Ingurumen arloko baldintzak” azpiatalean, betiere, egoki bada, kontratuaren xedearekin erlacionatuta badaude eta zehaztuen teknikatzen edo adjudikazio irizpidetzat hartu ezin badaitezke, adjudikaziodun eta azpikontratista orok bete beharreko gauzatze baldintza bereziak bilduko ditu, besteak beste, honako hauek:

- a) Erabilitako ontziak eta produktuak berrerabiltzea eta/edo birziklatzea eta horiek kudeatzaile baimendun bidez behar bezala ezabatzea.
- b) Hondakinak gaika biltzea, eta zati ezberdinak bereizita mantentzea, behar bezala kudeatzeko.

c) Kontratuaren hasieran berau gauzatzen arituko diren pertsonak ingurumen arloan trebatzea (hondakinen eta produktuen kudeaketa, energia eta ur kontsumoen murrizketa, edo kontratuan ezarritako ingurumen baldintzen ondoriozko beste alderdi batzuk).

d) Lan argibideak prestatzea, eta bertan, nagusiki, ingurumenari, laneko osasunari eta segurtasunari buruzko informazioa sartzea. Argibideok lanpostuetan egongo dira eskuragarri.

15. artikulua. *Gizarteratzeko eta lan munduratzeko kontratuen baldintzak.*

1. Helburu nagusi gisa gizarteratzea eta lan munduratzeko duten kontratuen klausuletan, kontratua gauzatuko dutenen artean gizarte bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak sartzeko betebeharra adieraziko da, gizarteratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duen eta horietan sartzeko eta erregistratzeko prozedura ezartzen duen azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuan adierazitako portzentajearen (gutxienez % 30) eta profilen arabera.
2. Zirkular honen II. eranskinak klausula honi dagozkion metodologia eta betebeharrak zehazten ditu. Eranskin hau kontratazio orriaren parte izango da eta funtsezko kontratu izaera osoa eta gauzatze baldintza berezi izaera izango du.

16. artikulua. *Gauzatze baldintzak eta adjudikazio irizpideak bateragarriak izatea.*

Gizarte eta ingurumen arloko gauzatze baldintza bereziak bateragarriak dira gizarte eta ingurumen arloko adjudikazio irizpideekin. Kasu honetan, koherentzia dagoela esango da baldin eta gauzatze baldintzek edozein enpresa adjudikaziodunek bete beharreko gutxieneko portzentaje bat ezartzen badute eta adjudikazio irizpideek beren borondatez portzentaje hori hobetzen duten enpresa lizitatzailerei puntuak ematen badizkiete.

17. artikulua. *Gizarte arloko adjudikazio irizpideak ez sartzeko arrazoia.*

Salbuespen gisa, kontratazio organoak adieraz dezake kontratuaren ezaugarriak ez direla egokiak gizarte arloko gauzatze baldintza bereziak sartzeko edo ezarritakoak baino portzentaje edo betebeharrak txikiagoak aplikatu behar direla. Halakoetan, aipatu irizpideak sartzeko komenigarria ez izateko arrazoiak txosten batean jasoko dira eta txosten hau espedienteari erantsiko zaio.

18. artikulua. *Atxikipen konpromisoa eta gizarte arloko gauzatze baldintzak ez betetzearen ondorioak.*

Pertsona edo erakunde lizitatzailerek I. eranskinean ezarrita dagoen gizarte arloko gauzatze baldintza bereziekin atxikipen eta konpromiso agiria aurkeztu behar dute.

Gizarte eta ingurumen arloko gauzatze baldintza bereziak funtsezko kontratu betebeharrak izango dira eta, horiek bete ezean, kontratazio organoak hauetako bat egin ahal izango du:

1. Kontratua ezeztatzea, ez-betetze errudunagatik, Sektore Publikoko Kontratuen 3/2011 EDren 223.f) artikuluan ezarritakoaren arabera. Horrek bi urtez edozein lizitazio prozeduratan lizitatu ezin izatea ekar lezake, Sektore Publikoko Kontratuen 3/2011 EDren 60.2.e) artikuluan adierazitakoaren arabera.
2. Kontratua gauzatzen jarraitzea, baina adjudikazio aurrekontuaren % 10eko zigor bat jarrita.

IV. KAPITULUA. ORGANO ESKUDUNAK

19. artikulua. *Kontratazio organoaren eskumenak.*

- a) Erreserbarako kontraturik egokienak gauzatzea eta zehaztea, eta aurrekontuaren gauzatze oinarrietan gutxieneko zenbatekoa finkatzeko proposamen bat egitea, erreserbatutako kontratuen bidez adjudikatzeke.
- b) Kontratu bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartuta gizarte eta ingurumen arloko adjudikazio irizpide

egokiak ezartzea, edo, hala badagokio, beharrezko gizarte hobekuntzak egitea.

- c) Gizarte eta ingurumen arloko irizpideak edo gauzatze baldintza bereziak ez aplikatzeko arrazoen txostenak prestatzea.
- d) I. eranskinean eta 8. artikuluan ezarritakoak ez beste irizpide batzuk zehaztea eta haztatzea, eta gauzatze baldintza bereziak egokitzea, 15. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- e) Gizarte eta ingurumen irizpideak haztatzea, kontratu bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartuta, 9. artikuluan adierazitako muga barruan.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Zirkular hau UPV/EHUren webgunean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

I. eranskina

GIZARTE ARLOKO IRIZPIDE ETA BEHARREKIKO KONPROMISOAREN ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak, NAN duenak, enpresaren gisa (administratzailea, gerentea, legezko ordezkaria) eta egintza honetarako behar adinako ahalmenarekin, honako hau adierazten du bere erantzukizunpean:

.....(r)en kontratazioa arautu behar duten administrazio klausula berezien orriaren I. eranskinean jasotako eduki guztiak ezagutzen ditu, ados dago haiekin, eta osotasunean onartzen ditu. Beste horrenbeste, aipaturiko kontratazio orrian kontratu soziala gauzatzeko gizarte arloko baldintza bereziei dagokienez, eta, hala badagokio, gizarte arloko adjudikazio irizpideei dagokienez:

1 Enpresak kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren lanpostuen % X lana lortzeko zailtasunak dituzten (edo bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden) pertsonentzat erreserbatzeko konpromisoa hartzen du. Bestela, lizitazio aurrekontuaren % X Gizarteratzeko Enpresa batekin edo Enplegu Zentro Berezi batekin azpikontratatu du.

2 Kontratua gauzatu duen langileen artean gutxienez % X ezintasunen bat duten pertsonak (% 33ko edo gehiagoko ezintasuna duten pertsonak) izateko konpromisoa hartzen du enpresak. Bestela, urtarrilaren 14ko 27/2000 Errege Dekretuan aurreikusitako neurri alternatiboak beteko ditu.

3 Kontratua gauzatu duen langileen artean gutxienez % X emakumezkoak izateko konpromisoa hartzen du enpresak, Estatistikako Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkestan dagokion sektorerako sexuaren eta jarduera adarraren arabera jasotako emakumeen batez besteko ordezkartza % X(e)koa dela kontuan hartuta.

4 Enpresak Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipio eta betebeharrak errespetatzeko konpromisoa hartzen du. Halaber, enpresak lege horretan aurreikusitako berdintasunerako Plana diseinatzeko eta aplikatzeko konpromisoa azaldu du, baita bitzita pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzeko proposamen teknikoan zehazturiko neurriak diseinatzeko eta aplikatzeko konpromisoa ere.

5 Enpresak ekoizpen kate osoan zehar oinarritzko lan eskubideak errespetatzeko eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarritzko arauak betetzeko konpromisoa hartzen du, baita kontratua gauzatzeko bidezko merkataritzako produktuak erabiltzeko konpromisoa ere, lizitazio aurrekontuarekiko % X(e)ko zenbatekoan.

Eta ados dagoela eta konpromiso horiek guztiak hartzen dituela erakusteko, agiri hau sinatu du,
.....(e)n, 201...(e)koaren(e)(a)n.

Enpresaren sinadura eta zigilua.

II. eranskina

LAN MERKATUKO PERTSONA GUTXIETSIEN KONTRATAZIOARI ETA GIZARTERATZEARI ETA LAN MUNDURATZEARI LOTURIKO HARTUTAKO BETEBEHARREN ETA KONPROMISOEN PROTOKOLOA

Protokolo hau aplikatuko zaie kontratu xede gisa berariaz gizarteratzea eta lan munduratzea duten kontratuei, baita, 14.1), 14.2) eta 15. artikuluetan ezarritako gauzatze baldintza aplikatuz, enpresa adjudikaziodunak lan merkatuko pertsona gutxietsiak kontratatu behar dituzenean edo adjudikazio irizpide gisa zirkular honen 8.1) eta 8.5) artikuluen bitartez hartutako konpromisoaren bidez portzentaje hori handitu baldin badu ere:

1 Adjudikaziodunak, kontratua gauzatuko duten langileen artean, % ...(e)ko portzentaje finko bat kontratazio orrian deskribatutako profilekin bete behar du:

- ✓ Oro har: lana lortzeko zailtasunak dituzten pertsonak. Kasu honetan, lanerako gaitasuna izan arren, lan aukera gutxi duten pertsonak dira.
- ✓ Kontratuaren xede gisa berariaz gizarteratzea eta lan munduratzea duten kontratuetan: bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak, gizarteratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duen eta horietan sartzeko eta erregistratzeko prozedura ezartzen duen azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuaren arabera.

2 Aipaturiko portzentajea kontratua gauzatuko duen enpresaren batez besteko plantillaren gainean eta erakunde lizitatuaren proposamen teknikoan agertzen den urteko lanegun kopurua erreferentziatzen hartuta kalkulatu da, kontratazio kopurua eskainitako ordu kopuruarekiko proportziozkoa izateko eta portzentaje hori lanaldi murriztuko langileen edo baja eta ordezkapenen arduradunen gainean ez jartzeko.

3 Kontratua adjudikatu ondoren, lehenengo bilera bat egingo dute kontratazio organoak kontratuaren segimendurako izendatutako langileek eta enpresa adjudikaziodunak bere ordezkaritzat jartzen duen pertsonak. Bilerako akta egingo dute, eta honako gai hauek aztertuko dituzte:

- ✓ Gizarte bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak lan munduratzeari eta gizarteratzeari edo kontratatzeari loturiko gauzatze baldintzaren edukia eta horretatik eratorritako betebeharrak zehatz-mehatz azaltzea.
- ✓ Enpresak kontratua gauzatzeko kontratatu behar dituen lanbide profilak berariaz zehaztea.
- ✓ Klausula honetan adierazitako erreserbaren bidez beteko den lanpostu kopurua hitzartzea eta zehaztea, baita kontratatutako diren pertsonak lanean hasteko gutxi gorabeherako datak ere. Kontratazio kopurua eta datak aldatu egin ahal izango dira, kontratazio organoarekin adostuta, zerbitzuaren prestazioan zehar, enpresaren beharretara egokitzeko (beharrezko pertsonak bere plantillan jarri, bajak, ordezkapenak eta behar izan daitezkeen langile berriak hartu).
- ✓ Lan baldintzak zehaztea (ordutegia, soldata, oporrak, etab.). Horiek enpresaren hitzarmena edo sektoreko hitzarmena errespetatu behar dute beti.
- ✓ Gizarteratzeko eta lan munduratzeko edo lanean txertatzeko prozesuaren segimendurako sistema finkatzea.
- ✓ Enpresa kontratistaren erreferentziatzeko pertsona izendatzea, betebehar sozialei loturiko gaietarako.

4 Nolanahi ere, ezarritako portzentaje bete behar da, zerbitzuaren prestazio denbora guztia eta langileek guztira eginiko lanegun kopurua kalkulu gisa hartuta.

5 Lizitazioa ebatzi eta kontratua formalizatu ondoren, enpresa adjudikaziodunak, datei eta langile kopuruari buruz hitzartutakoaren arabera, langileak hautatu eta kontratatuko ditu.

6 Gauzatze baldintza honetan eta ondorengo hitzarmenean ezarritako langile kontratazioak egin eta hilabeteko epean, enpresa adjudikaziodunak hautatutako pertsonen buruzko datuak jakinaraziko ditu, eta Gizarte Segurantzako altaren eta lan kontratuaren kopia aurkeztuko du, eta informazio hau guztia laneko laguntza programari helaraziko dio.

7 Sei hilez behin eta kontratuaren prestazioak iraun bitartean, enpresa adjudikaziodunak TC1 eta TC2

agiriak eta enpresaren matrikula liburua aurkeztu behar dizkio kontratuaren arduradunari, kontratua gauzatuko duen plantillan lan munduratzeko udal programetako eta laneko laguntza programetako pertsonen portzentaje finko bat izateko betebeharra betetzen dela egiaztatzeko.

8 Enpresak erabat mantentzen ditu lan harremanean dituen eskumenak eta, beraz, baita bidezkoak diren diziplina ekintzak gauzatzeko ahalmena ere. Hala ere, ekintza horien berri eman behar dio erakunde adjudikaziodunari, hain zuzen ere, lanpostuen erreserba betetzeko. Kasu honetan (eta iraupen luzeko laneko bajen kasuan), beste hautaketa bat egingo da erreserbaren xede den postua berriro betetzeko, aurrez adierazitako sistemaren arabera.

9 Gorabeheren kudeaketa. Enpresak langileren batekin lan, diziplina edo lanbide eskumen arazoak hautemanez gero, laneko laguntza programari horren berri eman ahal izango dio hark bitartekotza egin edo esku hartu ahal izan dezan, betiere, lan harremanaren esparruan enpresari dagozkion eskumenen kaltetan izan gabe.

10 Betebeharren subrogazioa. Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren zati bat gauzatzeko lanak azpikontratatu gero, azpikontratatuako enpresek berdin-berdin eta oso-osorik hartuko dute beren gain lanpostuen erreserbatik eratortzen den betebeharra.

11 Enpresa kontratistak gizarte klausula bete behar du, modu alternatiboan, bere kabuz lanpostuen erreserba egiteari legokiokeen kontratuaren proportziorako zatia gauzatzeko lanak Gizarteratzeko Enpresa batekin azpikontratatuta.

12 Kontratatuako diren pertsonak zehaztutakoan, hala badagokio, banakako gizarteratze ibilbidearen etapa honetako segimendu prozesua hitzartuko da haiekin. Ibilbidearen segimendua lan ordutegiari eragin gabe egingo da, kontratatutako pertsona bereizteko edo iraintzeko faktore bat izan gabe.

13 Kontratazio organoak kontratua gauzatu dela eta klausula bete dela kontrolatzeko eta ebaluatzeko dituen ahalmenak erabiliko ditu, eta enpresa adjudikaziodunari beharrezko irizitako dokumentazioa eskatu ahal izango dio, baita segimendu bilerak edo aldizkako ebaluazio txostenak egiteko eskatu ere.

III. eranskina

“LAN MERKATUAN SARTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN PERTSONAK”

Honako hauek hartzen dira lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonatzat:

- a) Barneratze hitzarmen bat sinatu duten sarrera bermeko errenta jasotzen duten pertsonak (aipaturiko programaren onuradun dela egiaztatzen duen dagokion oinarrizko gizarte zerbitzuaren ziurtagiriarekin egiaztatuta).
- b) 30 urtetik gorako emakumeak, kontratazio hau beren lehenengo lan esperientzia bada edo bost urteko jarduerarik ezaren ondoren kontratatu badituzte (lan bizitzaren txosten batekin egiaztatuta).
- c) % 33ko edo gehiagoko ezintasuna aitortzen zaien pertsonak (erakunde ofizial eskudunak igorritako ezintasun ziurtagiriarekin egiaztatuta).
- d) Etxeko indarkeria jasaten dutenak. Halakotzat hartzen dira bere ezkontidearengandik edo antzeko afektibitate harremanarekin modu egonkorrean berarekin egon den pertsonarengandik, aurrekoengandik, ondorengoengandik zein anaia-arrebengandik indarkeria fisikoa edo psikikoa jasan dutenak, betiere, egintza horiek zigor epai bidez edo biktima babesteko agindu bidez egiaztatu badira, edo, salbuespen gisa, babesteko agindua izapidetu bitartean, Zerga Ministerioaren txosten bidez egiaztatuta, txostenean pertsona salatzaileak halako indarkeria jasaten duen zantzuak daudela adierazten bada.
- e) Buru gaixotasunen bat duten pertsonak (medikuaren txostenarekin egiaztatuta).
- f) Guraso bakarreko familia bateko aita edo ama, betiere, gutxienez hiru hilabeteko antzinatasunarekin langabe gisa izena emanda baldin badago. Halakotzat hartzen da ordaindutako lanik egiten ez duen ondorengo pertsona bat edo gehiago bere kargura duen pertsona (aurkeztu beharreko egiaztagiria: komenientzia ziurtagiria, Familia Liburuaren kopia, ordaindutako lanik egiten ez duen ondorengo bat edo gehiago bere kargura duela adieraziz eginiko zinpeko adierazpena eta langabe gisa izena emanda eginiko denboraldiei buruz dagokion Enplegu Zerbitzu Publiko autonomikoak edo Estatukoak igorritako ziurtagiria).
- g) Erkidegotik kanpoko pertsona etorkinak, gutxienez 6 hilabetez jarraian langabe gisa izena emanda daudenak (langabe gisa izena emanda eginiko denboraldiei buruz dagokion Enplegu Zerbitzu Publiko autonomikoak edo Estatukoak igorritako ziurtagiriarekin egiaztatuta).
- h) Denbora luzean dagokien zerbitzu publikoan etengabe lan-eskatzaile gisa gutxienez 12 hilabetez izena emanda dauden pertsona langabeak (langabe gisa izena emanda eginiko denboraldiei buruz Enplegu Zerbitzu Publiko autonomikoak zein Estatukoak igorritako ziurtagiriarekin egiaztatuta).
- i) 45 urtetik gorako pertsonak, gutxienez 3 hilabetez jarraian langabe gisa izena emanda daudenak (langabe gisa izena emanda eginiko denboraldiei buruz dagokion Enplegu Zerbitzu Publiko autonomikoak edo Estatukoak igorritako ziurtagiriarekin egiaztatuta).
- j) 16 eta 30 urte arteko gazteak, 5-12 hilabetez jarraian langabe gisa izena emanda daudenak (langabe gisa izena emanda eginiko denboraldiei buruz dagokion Enplegu Zerbitzu autonomikoak zein Estatukoak igorritako ziurtagiriarekin egiaztatuta).
- k) Adingabeak babesteko erakundeetatik datozen pertsonak, betiere, lan munduratze prozesua zentrotik irten ondorengo hamabi hilabeteen barruan hasten bada (dagokion erakundearen ziurtagiriarekin egiaztatuta).
- l) Toxikomano ohiak (alkoholiko ohiak eta drogazale ohiak). Halakotzat hartzen dira dagokion talde terapeutikoaren iritziz desintoxikazio eta desohitze faseak gainditu dituzten eta 6 hilabete baino gehiagoz tratamendu jarraitua egiten ari diren pertsonak (dagokion osasun zentroaren ziurtagiriarekin egiaztatuta).
- m) Espetxeratuta dauden pertsonak, beren espetxe erregimenak lanpostu bat izateko aukera ematen dien arren lan kontraturik ez dutenak, eta preso ohiak, langabe gisa izena emanda daudenak, betiere, kontratazioa haiek aske geratu ondorengo 12 hilabeteen barruan egiten bada (dagokion erakundearen ziurtagiriarekin egiaztatuta).
- n) Hala eskatzen duen eta, oinarrizko gizarte zerbitzuen iritziz, Euskal Enplegu Zerbitzuaren iritziz edo erakunde laguntzaileen iritziz (beraiek egiaztatuta), lan munduratzeko berariazko esku-hartze edo jarduketaren bat behar duen pertsona oro.

o) Ekintza terroristaren bat edo banda edo talde armaturen bateko kide diren pertsonak (halakotzat hartuko dira formalki helburu horrekin sortuta egon ez arren helburu bera duten talde edo bandetako kide ez diren pertsona erantzuleak ere) bakea eta hiritarren segurtasuna larriki erasotzeko helburuz eginiko ekintzaren bat jasan duten pertsonak.